

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Administrazio-egintza ofizioz berrikusteko prozeduraren hasiera

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 8/2023 Erabakiaren arabera, eta kontuan hartuta udal honetako zerbitzu eskudunek honako administrazio-egintzak ofizioz berrikusteko espedientea bideratu dutela: 2022ko uztailaren 11ko 191/2022 Alkatetza-Dekretua, 2022ko azaroaren 4ko 316/2022 Alkatetza-Dekretua eta 2022ko uztailaren 20ko, 2022ko abuztuaren 2ko, 2022ko irailaren 8ko, 2022ko urriaren 13ko eta 2022ko azaroaren 17ko osoko bilkuren erabakiak; jakinarazten da prozedura honek xedapen orokor gisa ukitzen dituen egintzak honako hauek direla:

- Salmenta ibiltaria arautzen duen ordenantza (115 zenbakidun ALHAO, 2022ko urriaren 7koa).
- 5/2022 kreditu gehigarriaren espedientea (129 zenbakidun ALHAO, 2022ko azaroaren 11koa).
- Lankidetzeta-hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren – Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila – eta Zuiako Udalaren artekoa, UE-22an, Murgian, alokairurako Babes Sozialerako Etxebizitzak Sustatzeari buruzkoa.
- Zuia udalerrian baserriak eta etxebizitzak berreskuratzeko laguntzak ematea arautzen duten oinarriak (127 zenbakidun ALHAO, 2022ko azaroaren 7koa).
- 2022an Zuia udalerriko kirolari gazteei eta desgaitasuna duten kirolariei zuzendutako Diru-laguntzak arautzen dituzten Oinarriak (130 zenbakidun ALHAO, 2022 azaroaren 14koa).
- 2023 urterako zergak eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantzak (3 zenbakidun ALHAO, 2023ko urtarrilaren 9koa).
- 6/2022 kreditu gehigarriaren espedientea (150 zenbakidun ALHAO, 2022ko abenduaren 30ekoa).
- Ibilgailu elektrikoak erosteko 2022ko dirulaguntza deialdia (138 zenbakidun ALHAO, 2022ko abenduaren 3koa).

Prozedura hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 471.b), e) eta f) artikuluetan araututako deuseztasun-kasuen arabera hasten da. Kausa horiek gaiaren edo lurraldearen arabera argi eta garbi eskumenik ez duten organoek emandako egintzen barruan sartzen dira, eta egintza horiek legez ezarritako prozedura edo kide anitzeko organoen borondatea eratzeko funtsezko arauak erabat alde batera utzita eman dira, bai eta ordenamendu juridikoaren aurkako egintza espresu edo presuntziozkoak alde batera utzita ere, baldin eta egintza horien bidez ahalmenak edo eskubideak eskuratzen badira, horiek eskuratzeko funtsezko betekizunak betetzen ez direnean, hurrenez hurren.

Horrenbestez, 20 eguneko epean jendaurrean jartzeko eta, hala badagokio, entzunaldirako deialdia egiten da, espediente horretan interesdun izan daitezkeenak ager daitezen eta egoki iritzitako alegazio, iradokizun edo erreklamazio guztiak egin ditzaten.

Era berean, espediente osoa interesdunen eskura egongo da udalaren egoitza elektronikoan <https://www.zuia.eus> eta Zuiako Udaleko idazkaritzan, jendaurreko ordutegian.

Iragarki hau interesdunei jakinarazteko izango da, baldin eta entzunaldiaren izapidea eman zaiela zuzenean jakinarazterik ez badago.

Murgia, 2023ko urriaren 20a

Alkatea

UNAI GUTIERREZ URKIZA